

Teknologia digitalaren garapenak gizateriaren historian aurrekaririk ez duen pornografiaren hedapen masiboa eragin du

Pornografia eta hezkuntza: arazo global baterako gerturatze integrala

Raul Marcos Estradari elkarrizketa



Teknologia digitalaren garapenak gizateriaren historian aurrekaririk ez duen pornografiaren hedapen masiboa eragin du. Zer ondorio izaten ari da hedapen hori?

Pertsonok ez genuen inoiz hainbeste porno kontsumitu. Gaur egun eskaintza pornografikoa mugagabea da, doakoa, aurretik gertatu ez dena eta eguneko 24 orduetan eskuragarri dagoena, baldintza bakar batekin: Interneteko konexioa izatea. Pornoaren hedapen horren hasieran, Internet ordenagailu finko bati lotuta zegoenean, familiek, ordenagailuan gurasoen kontrol ona izanik, beren seme-alabak material pornografikoaren eraginpean jartzea saihestu zezaketen. Hala ere, teknologia digitalak Internet poltsikoan eramatea ahalbidetu duenetik, hau saihestea ia ezinezkoa da. Hori da gaur egun pornografiak planteatzen duen arazo nagusietako bat, bilatzen ez dutenengana ere iristen baita. Material pornografikoekiko nahi gabeko esposizioa gertatu daiteke, eta mugikorrik ez duten haurrek ere material pornografikoa ikus dezakete lagunen mugikorrean.

Pertsonak oso adin goiztiarretan hasten dira pornoa ikusten (7 urtetik 12 urtera bitartekoak, batez beste), hau da, kasu askotan dimentsio erotikoa garatu baino lehen. Hori dela eta, ikusten dutena ezin dute alderatu bizitza erotikoarekin, oraindik ez baita garatu, eta haur asko jakin-minetik hurbiltzen dira pornografiara, ikasteko asmoz. Kontuan izan behar dugu kalitatezko sexu-hezkuntzarik ez duten pertsona guztientzat pornoa bihurtu dela jarraibideen liburua, horrek dakarren arriskuarekin.

Zer eragin izan dezake pertsonen garapen psiko-sexualean eta erotikoa pornoa hain txikitatik kontsumitzean?

Egia esan, gai hori interneten bilatzen badugu, artikulua eta berri ugari aurkituko ditugu, eta horiek hitz egiten dute pornoa kontsumitzean duten pertsonak beren bikote-harremanetan desleialagoak direnetik, pornografia gehiegi ikusteak arazoak eragin ditzakeela eiakulazio-kontrollean edo erektzio-arazoetan ikus dezakegu. Badira pornografia adiktiboa izan daitekeela diotenak ere, osasun-arazo larria bihurtuz.

Nire ustez, baieztapen horietako asko ez dira egiazkoak (edo, behintzat, ñabardura asko egin beharko zitzaizkien), eta gaiaren tratamendu sentsazionalistarekin zerikusia dutela uste dut. Hala ere, ez dut uste hain txikitatik pornoaren kontsumoa kaltegabea ez denik. Pornografia imajinario erotikoa kolektibo bat eraikitzen ari da, non indarkeriazko jarreraren normalizazioa dagoen, eredu pornoerotiko honetan lekurik ez duten samurtasunaren edo erromantizismoaren devaluazioaren aurrean.

Beste alde batetik, pornografiak maskulinitate hegemoniko bat erakusten digu, indarrean, inizatiba hartzean oinarritua. Haiek dira arauak markatzen dituztenak, emakumeak gorputz-sarkor huts gisa eta beti gizonezkoen plazeraren esku jartzen dituen feminitate atsegin baten

aurrean: gizon desiratzailleak subjektu aktibo eta emakume desiragarrien rol batean, baina desiratzeko gaitasunik gabe, rol pasibo batean. Hori guztia sexuen arteko berdintasuna lortzeko gizarte gisa ezarri dugun helburu horren aurka doa.

Eta pornografiak izan dezakeen beste efektu bat da antsietate handia sortzen duela neska eta mutil askorengan, uste baitute ez direla egongo pornoa markatzen ari den mailan. Beraz, harreman erotiko partekatuak izateko orduan pertsona ez-segurukoak egiten laguntzen ari dela uste dut; izan ere, askotan ahaztu egiten zaie zer egin nahi duten beren ustez egin behar dutena egiten hasteko, pertsonen arteko harremanak izan behar duten paperaren antzeko zerbaitez eginez.

Gizarte gisa, gai horri modu egokian heltzen ari gara?

Gaur egun, duela urte batzuk baino askoz gehiago hitz egiten da pornografiarekin, bai ikasgeletan, bai bestelako prestakuntza-guneetan, eta ikastaro hau bera da adibide bat. Hala ere, uste dut ez garela modu integralean ari. Hezkuntza-kontrapisu gehiago behar dira, eta daudenak ez dira pertsona guztiengana iristen. Save the Children-ek nerabeen pornografiaren erabilierari buruz 2020an argitaratu zuen txostenean, galdetutako pertsonen % 48k pornoa ikaskuntza-iturri gisa baliozkotu zuen, eta % 30ek aitortu zuen pornoa izan zela erotikarekin lotutako gaiei buruzko informazio-iturri bakarra. Horrek, agian, sexu-heziketa egiten dugunean zertaz hitz egiten diegun pentsarazi behar digu; izan ere, agian garrantzi handiegia ematen diogu arriskuen prebentzioari, eta desira, plazera edo erotika, oro har, alde batera uzten ditugu. Horren ondorioz, pertsona gazteenek gai horiei buruz izan ditzaketen zalantzak pornografiaren bidez argitzen ari dira.

Gai horri heltzeko, sexu-hezkuntza integrala egin behar dugu, prebentzioan oinarrituta egoteaz gain, pertsona guztien dimentsio erotikoa garatzen lagunduko duena.